

KIROLAZ HEZI, KIROLAZ HAZI, OSASUNA IRABAZI



# EKINTZEN PROGRAMA

2021-2022 ikasturtea

## ANTOLATZAILEAK IKASTETXEAK - UDALAK

arizmendi  
ikastola



Arrasate  
Kirol Eskola

Luis Ezeiza  
Eskola



Arrasate  
Institutua



ARRASATEKO UDALA  
Arrasateko Udala



Aretxabaletako  
Udala



ARAMAIOKO  
UDALA



eskoriatzako  
udala



LEINTZ GATZAGA

## BABESLEAK



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



## KUDEAKETA

athlon  
bizimodu  
osasungarrien  
sustapena

## MONITOREAK

Heziketa fisikoan eta kirolean  
titulodunak edo ikasleak

INFORMAZIO GEHIAGO: [LEINTZESKOLAKIROLA.EUS](http://LEINTZESKOLAKIROLA.EUS)

# ESKOLA KIROLA

Talde bateko kide direla sentitzea. Laguntzea. Lankidetzan jardutea. Taldea egitea. Kirolak, osasuna zaintzeaz gain, harremanak sortzen ditu. Gure gizartean hain garrantzitsuak diren balioak irakasten dizkie haurrei, hala nola integrazioa, elkartasuna eta errespetua.

ESKOLA KIROLAK kirolaren alderdi hezitzailea sustatu nahi du, haur bakoitzaren gaitasunetara egokitutako ikaskuntza prozesuaren bidez, alde batera utzita haurren sexua, bizitokia, maila ekonomikoa...

Integratu eta batu egiten duen kirolean sinesten dugulako, pertsona guztiak berdin baloratzen dituen kirolean.

Eskola Kirola Foru Aldundiek, udaletxeek eta ikastetxeek bultzatutako proiektua da.

Info gehiago: [leintzeskolakirola.eus](http://leintzeskolakirola.eus)

## HELBURUAK

Haurren heziketa eta garapen integrala jolasa, jarduera fisikoa eta kirola bide izanik:

- Guztientzako jarduerak; berdintasuna, integrazioa eta inklusioa.
- Kirol aniztasuna, adinaren arabera hastapen eta irakaskuntza egokitua.
- Ikasleen arteko harremanak sendotu.
- Ohitura osasuntsuak barneratu.
- Jarduera fisikoaz eta Kirolaz gozatu.
- Euskararen erabilera sustatu.



# EKINTZEN ESKAINTZA



ADINA	PROGRAMAKETA	ASTEKO SAIOAK	EDUKIAK	LARUNBATAK
<b>JOLASAK</b> 6 - 8 urte LH 1 - 2	<b>JOLAS-HEZI PROGRAMA</b>	2	Jolasen bidez; gorputzaren ezaguera, gorputz adierazpena, rolen bizipena, espazioaren estrukturaketa, kirol-jolasak,...	4 topaketa
<b>MULTIKIROLA</b>  8-12 urte  LH 3 - 4 LH 5 - 6	<b>LEHIAKETA KIROLAK</b>	1 edo 2	Rugbya, atletismoa, boleibola, saskibaloia, eskupilota, eskubaloia, 8ko futbola, areto futbola eta beste batzuk	16-17 jardunaldi
	<b>AISIALDI JARDUERAK</b>	1 edo 2	Beisbola, badmintona, xunba, euskal pilota, boleibola, kirol egokitua, frontenisa, patinajea, jolas kooperatiboak, jolasak naturan, hockey patinak, ezagutza jolasak eta beste batzuk.	Topaketak aukeran
<b>ESPEZIALIZAZIOA</b>  12 - 14 urte DBH 1 - 2	<b>LEHIAKETA KIROLAK</b>	2 edo 3	TALDE KIROLAK: saskibaloia, eskubaloia, futbola, areto futbola, errugbia, hockey patinak, boleibola BANAKAKO KIROLAK: atletismoa, eskupilota, igeriketa, tenisa, padela, squash eta txirrindularitza.	Asteburuetan partidak kirolaren arabera
	<b>FITNESS JARDUERAK</b>	2	Fitnessera bideratutako ekintzak; xunba, hip-hop, balances, spinning, bosu, ...	
	<b>AISIALDI JARDUERAK</b>	2	Boleibola, padela, badmintona, malabarrak, eskalada, frontenisa, skate/patinajea, jarduerak naturan, squash..	Taldearen arabera ekintzak egiteko aukera
<b>KIROL EGOKITUA</b>	<b>KIROL JARDUERAK</b>	2	Taldeko ikasleen ezaugarrietara egokitutako ekintzak	Topaketak aukeran

# EKINTZEN ESKAINTZA



## KIROL ESKOLAK AUKERAN!

Multikirolean parte hartzen duten LH 3-6. maila bitarteko ikasleek, Leintz bailarako kirol elkarteek antolatzen dituzten "KIROL ESKOLETAN" parte hartzeko aukera izango dute. Astean saio bat eta topaketak hilean behin igande goizetan.

Taldekako kirolak: areto futbola, eskubaloia, errugbia futbola, saskibaloia, boleibola, hockey patinak

Banakako kirolak: atletismoa, xunba, igeriketa, tenisa, padela, squash, txirrindularitza eta eskupilota.

## SUSTAPEN JARDUERAK

Guztiontzat ikasturtean zehar hainbat larunbatetan eta ekainean udaberriko ekintzak: espeleologia, abentura parkea, surfa, padel surfa, patinajea, karting-a, parkour-a, golfa, igeriketa artistikoa, esgrima, eskalada, izotz-pista,...



## ETA GAINERA ...

Goi mailako kirol elkarteekin ekintza bereziak:  
BASKONIA saskibaloia taldeko Euroliga partida bat ikustera irteera.  
ERREALA: Partidak ikustera joateko sarreren zozketa.

Beste Kirol Jarduera batzuen informazioa: Santamas krosa, Ojala Zelai krosa, Kirol elkarten campus-ak, triatloi txikia,...





# HARREMANETARAKO

Ikastetxeetako koordinatzaileen  
kontaktuak:

<https://leintzeskolakirola.com/kontaktua/>

# OHARRAK

## COVID-19 SEGURTASUN PROTOKOLOA:

- Ekintza guztiak osasun sailak agindutako covid-19aren prebentziorako segurtasun eta higiene neurriak jarraituz antolatuko dira.

## ASEGURUA

- Foru Aldundiko Eskola kiroleko egitarauko edozein jardueratan parte hartuko duten 6 urtetik gorako ikasleak poliza baten onuradun izango dira. Aseguru poliza horrek kirola egiteak dakartzan arriskuen erantzunkizuna bermatuko die ondoko kasuetan : erantzunki-zun zibila, gorputz atalen galerengatiko kalteordainak, elbarritasun eta heriotza. Aseguru horrek ez du inola ere osasun zerbitzua bere gain hartuko, hau familiako aseguruaren esku dago.

## LEKeko WEBGUNEA

- Informazio orokorraz gain, ekintzen argazkiak eta bideoak ikusgai egongo dira.

